

8. (1401-1410)



8.1. 1401. URTEA

8.1.1. Nafarrak Pasaian, korrejidorea, izurrite beltza, etab.

1401-VIII-2an Gaztelako Enrike III.a *Gaixotia* erregeak baimena eman zien merkatari nafarrei Gipuzkoan Pasaiako portua eta Errenteriakoa erabil zitzaten. Askatasuna zuten beren gaiak portu horietan kargatzeko eta deskargatzeko, lehen Donostiako portuan egiten zuten bezalaxe.

Nafarrei emandako baimen hura Gaztelako Enrike III.a *Gaixotia* eta Nafarroako Karlos III.a *Prestua* erregeen arteko elkarlanaren emaitza zen. Bi erreinuen arteko mugan bakea ezarri zuten. Ermandadeen bidez Lazkaoko jaunak kontrolpean zituzten, Martin Martinez Zegamakoaren semeak Nafarroako Etxarri

eta inguruko herriekin bakea sinatzera behartu zituzten, etab.¹

Gipuzkoan urte hartan Fernando Perez Aiarakoa zen merio nagusi eta korrejidore, eta Gartzia Martinez Elduaiengoa alkate nagusi². Haiiek arduratzen ziren bertako delituengatik sortutako justizia-auziez. 1401-VI-19an Segurako hiribilduaren altxamenduagatik kexu zen Joan Perez Urbizukoa, Arieriako alkatea. Segurako alkabalak jaso behar zituen (Gaztelako 3.000 doblako), baina Segurako herriak gerra-deia egin eta gauez 150 pertsona inguruk Lazkaoko Apalategi etxeari eraso egin zioten. Joan Perez alkatea ezkutarietara eta Lazkaoko jaunak (Migel Lopezek) lagundu ziotelako salbatu zen. Segurar erasotzaileetako bi Lope Akoa eta Pero Lopez Akoakoa ziren³.

8.1. irudia. Segurako udaletxea. Lardizabal jauregia.



1401. urtean Gipuzkoan izurrite beltza hedatu egin zen. Kostaldetik hasita zabaldu eta kalte handiak eragin zituen lurralde osoan². Jende asko hil zen orduan, eta aipagarrietako bat (izurriteak jota hil zen ala ez ez dakigun arren) Oñatiko Pedro II.a Belez Gebarakoaren emaztea, Isabel Gaztelakoa, dugu. 1401-XII-30ean utzi zuen mundu hau, eta Gasteizko San Franzisko komentuan lur eman zioten⁴.

Izurritearen eraginez urte hartan Getariako herritar gehienek ihes egin behar izan zuten. Getarian, bestalde, XV. mendean balea ehizatzea zen hiribilduko ekonomiaren ardatz garrantzitsuetako bat. Urtean hiruzpalau balea harrapatzen zituzten Getaria inguruan azarotik apirila aldera arte. Sardako balea edo euskal balea (*enbalaena glacialis* edo *balaena biscayensis*) ehizatzen zuten.

Balea haiek 15-20 metro luze ziren, eta 60 tonaraino pisa zezaketen. Hildakoan hondoratu gabe ur gainean mantentzen zuten beren burua. Kumeez erditu eta negua igarotzera hurbiltzen ziren Bizkaiko itsasoko kostaldera.

Baleak talaietatik begiztatu eta marinelek lan neketsu eta ausartari ekiten zioten. Arpoiez jo eta hil ondoren, balea haiek porturaino garraiatzea lan nekeza zen. Gero balea zatitu eta enkantean saldu egiten zuten. Labetan pertz handietan urtu eta saina (koipea) ateratzen zioten. Ondoren barrikatan itsasoz Europa aldera esportatzen zuten saina, edo lehorretik Gaztelako eta Nafarroako erreinuetara.

Baleari dena aprobetxatzen zioten. Balearen ezer ez zen alferrik galtzen, baina, oro har, Euskal Herrian gutxi kontsumitzen zen. Espainia, Frantzia, Ingalaterra eta Herbehereetara esportatzen zuten.

Getarian, Erdi Aroaren amaieran, balearen etekinak honela banatzen ziren:

- Balea begiztatzen zuenarentzat: kintal bat.
- Balea zuzen jotako lehen arpoikada bota zuenarentzat: bi kintal.

- Ondorengo bost arpoikada bota zituztenentzat: kintal bana.

- Balea odolusteko sartutako xabalina bakoitzeko: kintal bana.

Ordainketa horien ondoren gelditutako balea zatia bitan banatzen zen. Erdia hiribilduarentzat zen, portua eta kaia konpontzeko, eta beste erdia balea harrapatu zutenen artean banatzeko.

Horrez gain, "mihia" eta hegala elizarentzat izaten ziren. "Mihia" burutik isatserainoko bizkarreko zerrendari esaten zitzaion. Kai-zerzagatik kintal bat jasotzen zuen herriak, portuko kaia konpontzeko. Balearen bizarrak ere baliatzen zituzten: heren bat herriko Kontzejuarentzat, beste herena txalupa-mai-suentzat eta hirugarrena marinekentzat.

Balearen hesteak eta sabela Getariako Salbatore elizako lanak ordaintzeko eta elizako kofradientzat ziren. Hezurak eta saihets-hezurak ateburuak eta altzariak egiteko erabiltzen zituzten, eta barailak mahats-parrei eusteko. Ornoak aulki gisa erabiltzen ziren. Balearen gantza sendagaiak egiteko eta kosmetikarako baliatzen zuten. Balearen esperma, berriz, biziki preziatzen zen Frantzia aldean ukenduak egiteko⁵.

Frantziako Proventza aldean zebilen 1401. urtean Iruñeko apezpikua, hau da, Martin Zalba kardinala. Avignongo giroa gero eta gogorragoa zelako, Arlese-ra alde egin behar izan zuen. Benedikto XIII.a aita santua Avignondik kanpora ateratzeko asmoa zuen Iruñeko apezpikuak⁶.



8.2. irudia. Getariako portua.

8.2. 1402. URTEA

8.2.1. Azpeitiko Soreasuko patronatua eta Martin Zalba

Aurreko zazpigarren kapituluan aipatu genituen Azpeitiko Soreasuko parrokiak izan zituen gorabeherak. Hainbat azpeitiar eskumikatuta zegoen, eta elizak interdiktua zeukan (hogei urtean iraun zuen). Beraz, parrokiari elizkizunak egiterik edo gorpuak hilobiratzerik ez zegoen, Iruñeko Martin Zalba apezpikuak debekatu zuelako.

Gaztelako Enrike III.a erregeak behin eta berriz berretsi zion Beltran Ibañez Oñazkoari (edo Loiola-koari) Soreasuko elizaren patronatua. Laugarren berrespen-agiria 1402-VII-5ean eman zion erregeak Loiolako jaunari, Salamancako Pelayos herriko monasterioan sinatuta⁷.

Bitartean, Iruñeko apezpikua, Martin Zalba kardinala, larri zebilen Benedikto XIII.a aita santuari laguntzen. Nafarrak Avignonen zuen etxea 1402-VI-6an erre egin zioten Aita Santuaren aurkakoek. Hala ere, Gaztelako erreinuan geroxeago berriz ere Benedikto XIII.ari obeditzea erabaki zuten⁶. Aragoiko erreinuak ere, Nafarroakoak bezalaxe, Benedikto XIII.a onartzen zuen Aita Santutzat. Hain zuzen Nafarroako Karlos III.aren Blanka alaba 1402-V-21ean Catanian Martin Siziliakoarekin (Aragoiko erreinuko oinordekoarekin) ezkondu zen. 1402-XI-9an iritsi zen Siziliara.

Urte hartantxe Nafarroako Karlos III.aren Joana alaba zaharrena Foixko konderriko Joan oinordekoarekin ezkondu zen Erriberrin (1402-XII-3an)⁸.

8.3. 1403. URTEA

8.3.1. Martin Zalbaren heriotza, Lantzelot Nafarroakoa, etab.

1403-X-27an hil zen Martin Zalba apezpikua, 66 urte zituela. Hil aurretik, ordea, Benedikto XIII.a aita santuak Avignondik ihes egiteko planean parte hartu zuen. 1403-III-12an Pedro Luna edo Benedikto monje kartusiarraren jantzian Avignongo egoitzatik kalera irten zen inor ohartu gabe. Hurrengo goizean, bere isilpeko laguntzaileekin, Avignongo hiritik ihes eginda, Châteaurenard-ko gaztelura heldu zen. Han zain zituen Martin Zalba nafarra eta zenbait soldadu.

Martin Zalba Salon herrian hil zen (Narbona ondo-ko Salonen hil zela diote, baina, gure ustez, Proven-tzako Salon hirian hil zen), eta kartusiarrek Bonpas herrian zuten komentuan lur eman zioten, Avignondik hamar bat kilometrora, Durance ibaiaren ertzean. Martin Zalba kardinala hil zenean, Nafarroako Karlos III.a erregea lanean hasi zen Iruñeko apezpiku sasiko seme Lantzelot izan zedin. 1403. urtean egindako tes-tamentuan ere asmo horixe erakutsi zuen erregeak. Hamazortzi urte besterik ez zuen Lantzelot semeak, eta Okzitaniako Tolosan unibertsitatean ari zen ikas-ketak egiten.

Benedikto XIII.a aita santua pertsona zorrotza zen, eta Nafarroako erregeari ezezkoa eman zion. Lantze-lot Nafarroakoa ez zen Iruñeko apezpiku izango, baina beste kargu batzuk eman zizkion⁶.

Urte hartan, 1403an, Pedro II.a Belez Gebarakoa, Oñatiko jauna, Cerezoko hiribildu eta gazteluko alka-te zen, eta Larako jaun Fernando infantearen aginduz 1403-VII-10ean Nafarroako Karlos III.a erregearen emaztea (Leonor erregina) agintaritzat hartu zuen. Pedro II.a Belez Gaztelako noble izanik, Nafarroare-kiko mendekotasun hura bateragarria zen⁴. Gaztelako Fernando infanteak bere seme Joan Nafarroako Kar-los III.aren alaba Isabelekin ezkontzeko ituna egina zuen. Burgosen 1403-VII-10ean sinatutako agirian

Cerezo eta Maderuelo herriak (gure ustez biak ere Segoviakoak) parekoak ziren ala ez egiaztatu behar zuten. Isabel eta Joan senar-emaztegaiek ezkontzeko adina (15 urte) zutenean Fernando infantearen aldeak ituna betetzen ez bazuen, Pedro II.a Belez Gebarakoa behartuta zegoen Cerezoko gaztelua Nafarroako Leo-nor erreginari ematera. Ituna Nafarroako alderdiak betetzen ez bazuen, Maderueloko gaztelua Fernando infantearentzat geratuko zen⁹.

XV. mendearen hasieran Euskal Herriko kostalde-an merkataritzak garapen handia izan zuen. Itsasoko lapurretak ere izaten ziren. 1403. urteko urrian, adibi-dez, Antso Gorostitza bilbotarraren itsasontziari, bur-dina zeramala, beste ontzi ingeles batek eraso egin zion. Bilbotarra hil eta ingelesek dena lapurtu zioten.

Urte berean merkatarik bizkaitarrak Arroxelan eta Flandesko Brujasen beren kontsuletxeetan saleroske-tan gogor ari ziren. Cadizen ere gremioa aspalditik eratuta zeukaten bizkaitarrek, mendebaldeko nabiga-zioan elkarri laguntzeko. Han urtero hautatzen zuten kontsula¹⁰.

8.4. 1404. URTEA

8.4.1. Bergarako Batzar Nagusiak, Iruñeko apezpikua, Lasao eta Lili

1404. urtean Bergaran Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatu ziren. Astigarribiko etxeak Probintziari sukaldeko sisteman ordaindu behar ziona barkatzea erabaki zuten; izan ere, Ermandadearen zerbitzura Ermandadetik altxatu zirenen aurka jardun zuenean, kalteak eta zauriak izan zituzten¹¹. Lope Ibañez Astigarribikoari barkatu zioten Probintziarekiko zorra¹². Astigarribiko etxeak sukalde-erdiari zegokiona ordaindu behar zuten bestela¹³.

1404. urteko ekainean Nafarroa eta Gipuzkoa arteko Ermandadeko notario eta komisario Joan Martinez Zabalakoa zen. Nafarroako Karlos III.a erregeak Gaztelako erregearengana (Enrike III. arengana) bidali zuen. Bidelagun izan zituen Gipuzkoako prokuradoreak. Helburua Ermandadeak emandako zenbait epai eta Ermandadearen beraren “Koadernoak” onestea zen¹.

Bestalde, Iruñeko elizbarrutia apezpikuruk gabe zegoen 1403-X-27an Martin Zalba kardinala hil egin zelako. Benedikto XIII.a aita santuak Migel Zalba iruindarra (Martin Zalba zenaren iloba) kardinal egin zuen 1404-V-9an, eta Erromako San Jorge al Velabroko eliza esleitu zion. Migel Zalbak Avignongo unibertsitatean irakasle-lanetan ziharduen orduan. Oso jakituna zen.

Egun batzuk geroago, 1404-V-22an, Benedikto XIII.a aita santuak Iruñeko apezpiku izendatu zuen Migel Zalba iruindarra. Bikario nagusien bidez gobernatu zuen elizbarrutia, zeren eta Benedikto aita santuaren ondoan, haren esanetara, bizi baitzen.

Nafarroako Karlos III.a erregeak sasiko seme Lantzelot Iruñeko apezpiku izatea nahi zuen, baina Benedikto aita santuak ez zuen onartu. Horren ordez, notario apostoliko, Kalagorriko artxidakono eta beste zenbait kargutarako izendatu zuen. Hainbat mesede ere egin zion Lantzelot Nafarroakoari⁶. Lantzelotek

8.3. irudia.
Begarako
udaletxea.



Iruñeko elizbarrutiko jurisdikzioa bere esku eduki zuten, baina apezpiku izan gabe. Elizbarrutiko bikario nagusi eta administratzaile izan zen 1420. urtean hil zen arte⁸.

1404-XII-19an Lasaoko burdinolaren jabe Joan Gartzia Lasaokoa azaltzen da, Gartzia Perez Undakoren semea. Egun horretan Joan Perez Zabalakoari Anegi mendia erosi zion 1.500 marai zaharretan. Gogoratu beharra dago Anegi leku-izena 1385. urtean Zestoako lurraldea mugarritu zutenean azaldu zela (ikus [XIV. m. 9] agiria). Azpeitiko Larraar (oraingo Lar) etxetik eta Zestoako parteko Olatxo etxetik gertu zegoen.

Lasaoko burdinolaren mugak hauek ziren: Orolditza (oraingo Ugalditza), Upaegi (oraingo Upei), Urruzuno erreka, Lasaotik Upei gaineraino eta Aizarra alderako gurutzeta.

Bestalde, Martin Diaz Lilikoa azaltzen zaigu 1404. urtean, fidatzaile gisa, Lasaoko Anegi mendia salerosketan¹⁴. Lekuko ziren, besteak beste, Matxin Gesalaga errementaria eta Joan Askatsua zurgina, zestoarrak biak ere (ikus [XV. m. 1] agiria).



8.4. irudia. Zestoa. Lasaoko Olatxo.

8.5. 1405. URTEA

8.5.1. Santa Engrazia, Nafarroako elizbarrutiak, nabigazioa, etab.

Benedikto XIII.a aita santuak 1405. urtean Italiara bidaia egitea erabaki zuen. Maiatzaren 7an sei itsasontzi eta zazpi kardinalekin abiatu zen. Kardinal haietako bat Migel Zalba iruindarra zen, Martin Zalba zenaren iloba.

1405-V-16an Aita Santua bere segizioarekin Genoara iritsi zen, baina hiri hartan disenteria-izurri-

tea zegoelako, Benedikto XIII.ak Savonara erretiratzea erabaki zuen. Urriaren 8an heldu zen Savonara. Han zegoela, 1405-XI-6an, agiri bat sinatu zuen Aizarnako Santa Engraziako ermita konpontzeko limosnaz laguntzen zutenentzat induljentiak emanaz. [XV. m. 2] agirian emanak ditugu Savonako agiriaren zehaztasunak eta laburpena. Argi eta garbi dago, dena den, Santa Engrazia 1405. urtea baino lehen eraiki zela. Zenbaiten ustez tenplarioena zen. Agian indusketa arkeologikoa eginda zenbait gai argitu egingo lirateke¹⁵.



8.5. irudia.
Aizarnako Santa Engrazia.

Nafarroako Karlos III.a erregea urte hartan Franzian zela eta, Benedikto XIII.ari Nafarroa artzapezpiku-barruti izenda zezala eskatu zion. Erregearen proiektuaren arabera, Nafarroako artzapezpikuak egoitza Iruñean izango zuen, eta hiru elizbarruti berri, apezpiku banarekin, sortuko ziren: Iratxekoa, Tuterakoa eta Orreagakoa. Elizbarruti berri haietara bilduko ziren orduan Zaragoza, Tarazona, Baiona eta Kalagorriko elizbarrutien mende zeuden Nafarroako herriak.

Zaragozako artzapezpikuak eta Tarazonako apezpikuak ordainetan Valdonsellako artzapez-barrutia jasoko zuten. Kalagorriko elizbarrutiak Gipuzkoan Iruñearen mende zeuden herriak jasoko zituen, baina Baionako elizbarrutiak ez zuen ordainetan deus ere jasoko; izan ere Baionan aspalditik zeuden Erromako (eta ez Avignongo) Aita Santuari obeditzen zioten apezpikuak.

Dena den, Nafarroako Karlos III.a erregearen proiektu hark ez zuen aurrera egin, eta elizbarrutien mugak lehenean geratu ziren⁶.

Bestalde, 1405. urtean Zamorako Toro hirian Gaztelako Joan II.a erregea jaio zen, eta urte berean Beltran Ibañez Loiolakoak (edo Oñazkoak) testamentua egin zuen. Loiolakoek txearene rdiae mazteari (Otxanda Martinez Leetekoari) utzi zion. Dorretxeak ondolan dolarea eta errotak zituen. Joan Perez Loiolakoa semeak jasoko zituen oinordetzan Loiolako etxea, Oñazkoa, Soreasuko elizako patronatua, burdinolak eta erregeak egindako mesedeak⁷.

1405. urtean Gaztelako Enrike III.a erregeak Franzia-koari itsasoz laguntzea erabaki zuen, Ingalaterrari aurka egitearren. Bizkaiko itsasoko kostaldean Gaztela, Bizkaia eta Gipuzkoako berrogei itsasontzi atondu ziren gerrarako¹⁰.

8.6. 1406. URTEA

8.6.1. Gaztelako Enrike III.aren eta Migel Zalbaren heriotza

1406-XI-5ean, Valladoliden, Enrike III.a *Gaixotia* erregeak berretsi egin zuen Alfontso XI.a erregeak 1338-IX-10ean Guadalajaran Gipuzkoako olagizonei emandako pribilegio (ikus [XIV. m. 1] agiria). Berrespen-agiriaren kopia bat Zestoako Udal Artxi-boan dago¹⁶. Gaztelako Enrike III.a urte hartan hil zen Toledon, abenduaren 25ean. Joan II.a semea izan zen oinordeko, urtebeteko haurra. 14 urte zituela, 1419an, hasi zen erreinua gobernatzen. Bitartean erregeordealdia izan zuten.

Enrike III.a erregea hil zenean, Katalina Gaztelakoa emazte alarguna eta Fernando osaba infantea arduratu ziren gobernuaz eta oinordeko haurra zaintzeaz. Bi zaintzaileek sinatu zuten agirian, lekuko

izan zen Pedro II.a Belez Gebarakoa, Oñatiko jauna⁴.

1406. urtean Benedikto XIII.a aita santua Italian, Liguriako Saonan, zegoen, eta harekin batera Iruñeko apezpikua, Migel Zalba, ere bai. Izurritea zela eta, Benedikto lehorrez Noli herrira (Liguriako Savonako Finale ondora) iritsi zen ekainaren 26an, Zalba lagun zuela. Ekainaren 27a, igandea, bertan igarota, Finale hiriko gaztelura joan zen. Laguntzaile bakarra Migel Zalba zuen. Segizioko gainerakoak Savonara erretiratu ziren. Finaletik Benedikto XIII.a Monakora joan zen itsasoz, baina izurriteak kalte handiak egin zituen, eta, kutsatuta, 1406-VIII-24an Migel Zalba iruindarrak azken arnasa eman zuen. Gorpua Nizara eramane eta han frantziskotarren komentuan hobiratu zuten. Gero, Avignon ondoko Bonpasko kartusian eman zioten lur hilotzari, osaba Martin Zalbaren gorpuzkiaren ondoan⁶.

8.7. 1407. URTEA

8.7.1. Gaztelako Joan II.aren berrespenak, Iruñeko elizbarrutia, eta Gibraltar

1407. urtean Gaztelako Joan II.aren izenean erregeordeek hainbat agiriren berrespena egin zuten. Segovian 1407-VII-20an, adibidez, Alfontso XI.a erregeak Guadalajaran 1338-IX-10ean Gipuzkoako olagizonei emandako pribilegioa (ikus [XIV. m. 1] agiria) berretsi zuten¹⁶. Halaber Azpeitiko Soreasuko elizaren patronatua, Oñatz-Loiola etxeko en esku zegoena, Segovian 1407-VII-29an luzatutako agiria-
ren bidez⁷. Hiri berean, abuztuaren 16an, berretsi zuten Joan I.a erregeak Zestoari 1383-IV-15ean emandako hiri-gutuna ere¹⁶.

Esana dugunez, 1406-VIII-24an Migel Zalba kardinal iruindarra hil egin zen, eta harrezkero Iruñeko elizbarrutiak hamasei urtez ez zuen apezpikurik izango. Elizbarrutia bikario nagusiek gidatu zuten, eta 1407. urtean Martin Eusa zebilen eginkizun horretan. Besteak beste, Debako eta Itziarko parroketan gehienez zenbat apaiz egongo ziren finkatu zuten.

Nafarroako Karlos III.a *Prestua* erregea berriz ahalegindu zen sasiko Lantzelot semea Iruñeko apez-

piku izan zedin, baina Benedikto XIII.a aita santuak, Iruñeko elizbarrutiko ardura bere gain hartuta, Nikolas Lopez Orreagakoa izendatu zuen bikario nagusi. 1407-VI-1ean Marsellan sinatu zuen agiria Aita Santuak, eta Nikolas Lopez bikario nagusiari utzi zion Iruñeko elizbarrutia, arlo espiritualari zein materialari zegokienez, gobernatzeko ardura.

Izendapen haren ostean, Lantzelot bera Pedro Luna edo Benedikto XIII.a aita santuaren aurrean aurkeztu zen. 1407-VII-24an Benedikto XIII.ak Nafarroako Karlos III.ari Lantzelot semearekin elkarriketatu zela jakinarazi zion, baina Lantzelot Nafarroakoa esku hutsik itzuli zen Iruñera⁶.

1407. urtean Gaztelako Fernando infanteak, Nafarroako Leonor erreginarenean ilobak, Granadako erreinu musulmanaren aurka gerra hasi zuen. Gaztelako tropekin batera borrokan egin zuten Nafarroako zaldun batzuek ere⁸. Itsasoz, berriz, besteak beste Bizkaitik sei ontzi joan ziren. Gibraltarko itsasarteko batailan garaile atera ziren Tunisiako eta Aljeriako Tremencen-go (Oran-dik gertuko oraingo Tlemecen edo Tilisem-go) erregeen itsasontzien aurka¹⁰.

8.6. irudia. Azpeitiko Soreasuko parrokia.



8.8. 1408. URTEA

8.8.1. Iraetako jauna, Zestoako alkatea, Oñatiko jauna, etab.

Iraetako jaunak, Joan Beltranek, Aizarnazabalgo elizako patronatua bere esku zuen Gaztelako Enrike III.a erregeak emanda, eta haren seme Joan II.a erregeari eskea egin zion aitak eman zion pribilegioa berrets zezan. Joan II.ak 1408-V-22an Guadalajaran berretsi zion (ikus [XV. m. 3] agiria).

tzan emanda, Lizarrako merindadeko Etaiu, Oko eta Egako Granadako mendiak bereganatu zituen. 1408. urtean (eta denboraldi batez) Oñatiko jauna Nafarroako Karlos III.aren kamarlengo izan zen.

Garai hartan, besteak beste, txanpon hauek erabiltzen zituzten: Gaztelako dobla, 38 marai zahar balio zituena, eta Aragoiko urrezko florina, 22 marai zahar balio zituena⁴.



Bi hilabete geroago, 1408-V-22an, Zestoako alkate Lope Ibañez Amilibikoak aginduta, [XIV. m. 1] agiriri eta hau berresten zuten ondorengo erregeen agiriei kopia atera zien Joan Lopez Aizarnakoak (Zumaiako eskribauak). Eskribauak kopia idatzi zue-nean, besteak beste, lekuko zen Martin Lopez Iraetako, “Matxinmerro” edo “Matxin Marro” goitizenekoa (ikus [XV. m. 4] agiria).

Urte hartantxe, 1408an, Pedro II.a Belez Gebarakoa, Oñatiko jaunak, Nafarroako Karlos III.ak dohain-

8.7. irudia. Aizarnazabalgo eliza.

Gutxienez 1408. urteaz gero, Bizkaiko eta Gipuzkoako herriek ez zuten zergarik ordaintzen elikagaiak eta kontsumorako oinarrizko produktuak honako lurralde hauetatik inportatuta: Frantzia, Guiena, Britainia, Ingalaterra, Nafarroa eta Aragoitik. Horren ondorioz, gero aduanak ipiniko ziren zergetatik aske zeuden eta ez zeuden lurraldeen artean (besteak beste, Segura, Ataun, Urduña, Gasteiz, Agurain eta Logroñon)¹⁷.

1408. urtea erabakigarria izan zen Lantzelot Nafarroakoarentzat. 1386-IV-15a aldera jaioa zen. Karlos III.a erregea zuen aita, eta Maria Migel Espartza andrea ama. 1408an, Lantzelotek 22 urte zituela, maiatzean Frantziako erreinuak bazter utzi zuen Avignongo Benedikto XIII.a. Benedikto kinka larrian zegoen, bere kardinalak ere utzi egin zutelako. Erromako Gregorio XII.a aita santuaren kardinalekin

batera, Pisan kontzilioa egitekoak ziren.

1408-VIII-23an Nafarroako Karlos III.a Rosselloko Perpinya hirian Pedro Luna edo Benedikto aita santuarekin elkarrizketatu zen. Orduan lortu zuen Nafarroako erregeak seme Lantzelotentzat Iruñeko elizbarrutia. Lantzeloten esku egongo zen elizbarrutiko jurisdikzio eta administrazio osoa, baina apezpiku-gradurik ez zuen izango. Bikario nagusi eta bakar izango zen⁶.

1408. urtean San Bizente Ferrer (1350-1419) domingotar valentziarra Euskal Herrira etorri zen. European zehar misiolari ibili ondoren iritsi zitzaigun. Gipuzkoan eta Bizkaian jardun zuen Kristoren irakatsiak zabaltzen. Gaiztakeriaren eta biraoaren etsai izanik, euskaraz haren gorasarre hitz hauek famatu egin ziren: “Frai Bizentek esala, fedea zina lizala”¹⁸.

8.9. 1409. URTEA

8.9.1. Benedikto XIII.a, Gregorio XII.a eta Alexandro V.a

1409. urtean Eliza katolikoak aldi berean hiru Aita Santu eduki zituen. Avignongo Benedikto XIII.ak ez zion bere karguari uko egin. Are gutxiago Erromako Gregorio XII.ak. Baziren, ordea, zismari amaiera eman nahi zioten errege eta kardinalak. Azken haue-tako batzuk, Benedikto XIII.a eta Gregorio XII.a

onartzen ez zituztenak, Italiako Pisa hirian bildu ziren, eta bertan kontzilioa eginda, Alexandro V.a izendatu zuten Aita Santu.

Nafarroako erreinua eta Iruñeko elizbarrutiko Lantzelot leial jarraitu zitzaizkion Benedikto XIII.ari⁶. Dena den, Elizaren zismak 1417. urtera arte iraun zuen.

8.10. 1410. URTEA

8.10.1. Lantzelot Nafarroakoa, Lasao, Iraeta, Pedro II.a Belez Gebarakoa, etab.

1410-XI-7an Iruñeko elizbarrutiko administrazioaren arduradunak, Lantzelot Nafarroakoak, Aizarnako parrokiakoei berretsi egin zien elizako erretorea aurkezteko eskubidea. Parrokia erretorerik gabe zegoe-nean bertako apaizen bat kargu horretarako aurkeztea Martin Zalba kardinalak onetsi zien (ikus [XIV. m.

13] agiria). Zalbaren agirian, 1396-II-6koan, garbi azaltzen da Zestoan harresi barruan beste parrokia bat ere eraiki zutela zestoarrek.

Dena den, Martin Zalba apezpikuaren garaian, aizarnarrek beren parrokiarako erretore izateko Joan Perez Ibañetakoa presbiteroa aurkeztu zioten kardinalari, eta hark Aizarnako erretore izendatu zuen. Harrezkero zebilen Ibañetako zestoarra Aizarnako erretore.



8.8. irudia. Zestoako parrokia.

1410. urtean Aizarnako parrokiakoek beste eskari bat ere egin zioten Lantzelot Nafarroakoari: alegia, Zestoako parrokia berriko patronatua, Aizarnakoa zuten bezalaxe, haien esku utz zezala. Lantzelotek eskea ontzat eman zien, baina baldintza bat ezarrita: apaizak aurkezteko eskubidea eta patronatua beste inoren esku uzterik ez zuten izango. Eskuz aldatzen saiatzen baziren, ekintza hura berehala deuseztaturik geratuko zen, eta eskubide guztiak, bat-batean, Iruñeko apezpikuarengana itzuliko ziren (ikus [XV. m. 7] agiria).

1410-II-26an, Lasaoko Anegin Joan Martinez Letekoa azpeitiarrak zituen lurren bederatzirena saldu zion Joan Gartzia Undakoa zestoarrari. Oroliditza (oraingo Ugalditza) Legazpi (orain Urola) ibaia eta Aizarnako partearen artean zeuden. Ordainetan azpeitiarrak jasoak zituen zestoarrarengandik berrogei kintal burdina barra biribil tolestutan (agoa bakoitzetik hiru barra aterata) Beduako portuan. Gainera, burdina harengatik zergak ordaindu beharrik ez zuen. Salerosketa hartan lekuko izan ziren Joan Beltran Iraetako jauna eta Pero Lopez Barrundikoa eskribaua,

besteak beste (ikus [XV. m. 5] agiria).

Urte hartako apirilaren 22an, Fernando Perez Undakoak Zestoan onartu egin zuen eta ontzat eman zuen lehenago 1404-XII-19an (ikus [XV. m. 1] agiria) egindako Anegiko lur eta mendien salerosketa. Gartzia Perez Undakoa zen 1410ean aipatutako lurren jabea, eta salmenta 1404.ean Joan Gartzia Undakoari (Gartzia Perezen aitari) egin zitzaion. Pedro Lizasoain apaiza eta Antso Unda izan ziren lekuko Azpeitiko Joan Perez Otalorakoak egindako agirian (ikus [XV. m. 6] agiria).

1410-XI-28an Arrasaten Martin Santxez Martzakoak (Durangaldeko Atxondo herriko auzoa da Martzana edo Martzaa) agiri bat sinatu zuen honako hau aitortuz: 23 urte inguru lehenago Martzaako dorretxea erre eta eraisten arrasatearrak ez zirela ibili. Otxoa Martinez zen 1387an (23 urte lehenago) Mar-

tzaako jauna, eta auzitara eraman zituen erasotzaileak Gonzalo Moro eta Alonso Castro Obartokoa korrejidoreen eta Durangoko Lur zabaleko foru-alkateengana. Dorretxea botatzera Gipuzkoako Ermandadea joan zen Martzaara. Erasotzaileak hauek ziren: Joan Lopez Ganboakoa, Otxoa Lopez Baldakoa, Fortun Santxez Zarauzkoa, Joan Beltran I.a Iraeta, Joan Santxez Elgetakoa eta Gipuzkoa zein Bizkaiko beste zenbait oinetxetako buruzagiak. Martzaako Martin Santxez jaunak onartzen du Arrasateko auzotarrak ez zirela ibili, baina Joan Beltran I.a Iraeta zestoarra ibili zen gerra hartan 1387an, lehentxeago aipatutako beste jaun ganboatarrekin batera.

Arrasateko 1410-XI-28ko agirian lekuko gisa, besteak beste, Joan Bañez Artazubiagakoa azaltzen da¹⁹. Kontuan hartzeko deitura da, zeren eta Zestoan XV. mendearen amaieraz geroztik Bañezetxea eta Artazubiaga familiako kideak maiz azaltzen baitira.



8.9. irudia. Kalebarrena edo Bañezetxea Zestoako Kaleokerrean.

Pedro II.a Belez Gebarakoa, Oñatiko jauna, izan zen 1410. urteko beste protagonista bat. Urtearen hasieran, urtarrilaren 4an, Gipuzkoak eta Ingalaterrak Hondarribian su-etena sinatu zuten. Gaztelako erreinuko ordezkari Pedro II.a Belez Gebarakoa eta Gonzalo Moro (Gipuzkoako korrejidorea) izan ziren.

Gero, abuztuaren 14an, Oñatiko jauna Baiona setiatzen saiatu zen. Setioa altxatu eta itzulerakoan, Donibane Lohizune eta Baiona inguruak erre egin zituzten. Martin Garibai oñatiarra ere han zen Pedro II.a Belez Gebarakoarekin⁴.

1410. urte hartan, Nafarroako Karlos III.a erregea Frantzian zelako, Leonor Gaztelakoa emaztea zen

erreinuko arduradun. Hark, erreginak, berriz ezarri nahi zituen tregoak batetik Lazkao, Amezketeta eta Erasoko leinuen eta, bestetik, Nafarroako mendialdeko Aiero Ugartekoa (Oiartzungoa) kapitainaren artean¹.

Gipuzkoarrek, bestalde, Fernando Perez Aiarakoaren agindupean 1410ean parte hartu zuten Malagako Antequera musulmanei konkistatzen²⁰.

Urte hartantxe hil zen Aragoiko Martin I.a erregea. Ez zuen seme-alabarik izan Nafarroako erregearen alaba Blanka emaztearengandik, eta dinastia-krisia sortu zen Aragoiko erreinuan⁸.



8.10. irudia. Arrasate. Bañez-Artazubiaga jauregia. (Indalezio Oiangurenen argazkia).

8.11. ZORTZIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ ORELLA UNZUE, J. L. *Los orígenes de la Hermandad de Guipúzcoa. Las relaciones Guipúzcoa-Navarra en los siglos XIII-XIV*, in Cuadernos de sección. Historia-Geografía, 3. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (92. or.).

² TENA GARCIA, M. S. *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*. Donostia, 1997. (250, 373, 374. or.).

³ DIEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática del concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500)*. II. alea (1401-1450). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 47. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1993. (1-3. or.).

⁴ AIERBE IRIBAR, R. M. *Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI)*. I. Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (165-167, 503. or.).

⁵ TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Boletín LXIV-1-2008. Donostia. (115, 144, 148-150. or.).

⁶ GOÑI GAZTANBIDE, J. *Historia de los obispos de Pamplona*. s. XIV-XV. II. Alea. Iruñea, 1979. (357-370, 373, 374, 377, 389, 391, 394-397, 400, 407-409, 411-414. or.).

⁷ ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Guipúzcoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (103, 106. or.).

⁸ LACARRA, J. M. *Historia política del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*. III. alea. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (165, 183-185, 189, 220. or.).

⁹ AIERBE IRIBAR, R. M. *Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI)*. II. Documentos. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (72-81. or.).

¹⁰ LABAIRU GOIKOETXEA, E. *Historia general del Señorío de Bizcaya*. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (33-35, 45. or.).

¹¹ ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. XXXIV. urtea. 3. eta 4. koadernoak. Donostia, 1978. (541. or.).

¹² LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta beste. *Regesta de las Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa hasta 1550*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (104. or.).

¹³ LARRAÑAGA ZULUETA, M. *Aproximación al estudio económico de Gipúzcoa a través de las fogueraciones de Juntas*, in *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (260. or.).

¹⁴ DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1997. (394, 395, 399. or.).

¹⁵ AZKUNE MENDIA, I. *Santa Engraziko ermita*, in *Zestoa*. Amabirjin jaiak, 2004.

¹⁶ AIERBE IRIBAR, R. M. eta ELORTZA MAIZTEGI, J. *Archivo Municipal de Zestoa (1338-1520)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 136. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2008. 20. agiria. (64-69. or.).

¹⁷ LEMA PUEYO, J. A. “*Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo*”: *de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*, in *El triunfo de las elites guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*. Iturriak, 3. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (97. or.).

¹⁸ ONAINDIA, S. *Euskal Literatura (I)*. Etor argit. Bilbo, 1972. (39. or.).

¹⁹ HERRERO, V. J. eta beste. *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo V. Libro 2. Copia de los privilegios antiguos (1217-1520)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 86. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1998. (23-25. or.).

²⁰ AROZENA, F. *Guipúzcoa en la historia*. Minotauro argit. Madril, 1964. (99. or.).